



TOLOSAKO  
UDALA

## GOBERNU BATZARRA

2019.05.06

**Alkatea:**  
**Olatz Peon Ormazabal**

**Bertaratutako zinegotziak:**  
**Nerea Letamendia Belloso**  
**Jokin Azkue Arrastoa**  
**Patxi Amantegi Zubiria**  
**Iñigo Alonso Sarasibar**

**Idazkaria:**  
**Begoña Garmendia Vazquez**

**Kontuhartzailea:**  
**Ainhoa Molinos Zubiaurre**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemeretziko maiatzaren seian, 8:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. Aurreko akta onartzea.
2. Onartzea Tolosako Udaleko Txistulari Bandako lan poltsa osatzeko deialdia eta oinarriak.
3. 2019/622 Dekretuaren berri ematea (2019/16 faktura-zerrenda).
4. 2019/660 Dekretuaren berri ematea (2019/17 eta 2019/18 faktura-zerrendak).
5. Alkatetza dekretu hauen berri ematea: 2019ko apirilaren 5etik 30era (dk2019/570-2019/691).

### **1. AURREKO AKTA ONARTZEA.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2019ko apirilaren 15ean egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

### **2. ONARTZEA TOLOSAKO UDALEKO TXISTULARI BANDA KO LAN POLTSA OSATZEKO DEIALDIA ETA OINARRIAK.**

#### **AURREKARIAK**

Udaleko Txistulari Bandako zuzendariak lan poltsa bat osatzeko eskaera egin du, txistularien plantillan dauden bi hutsuneak ikusirik: honela, kontuan izanda Udala Txistulari Bandaren egoera, premiazko izaeraz oinarri batzuk onartu eta lan poltsa bat eratzea



proposatu da, behintzat lanpostuak aldi baterako betetzeko eta zerbitzua eman ahal izateko. Honetarako, Txistulari Bandako zuzendariak dagokion txostena egin du behar hau justifikatuaz.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

### a) LANPOSTUAK BEHIN BETIRAKO BETETZEKO MUGAK: 2018KO ESTATUKO AURREKONTU OROKORRA

I.- Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegilearen 10. artikulua bitarteko funtzionarioen araubidea xedatzen du, honako era honetan:

*1. Bitarteko funtzionarioak dira, urgentziak eta beharrak hala aginduta, berariaz justifikatutako arrazoiak direla-eta bitarteko funtzionario izendatutakoak karrerako funtzionarioei dagozkien zereginak egiteko, hauetako bat gertatzen denean:*

*a) Plaza hutsak daudenean, baldin eta ezin badira karrerako funtzionarioekin bete.*

*b) Titularrak aldi baterako ordeztzeko denean.*

*c) Aldi baterako programak betetzeko denean; programa horiek ezin izango dute hiru urtetik gorako iraupena izan, eta beste hamabi hilabetez luzatu ahal izango dira, estatutu*

*hau garatzeko ematen diren Funtzio Publikoko legeen bidez.*

*d) Zeregin kopuru handiegia edo zeregin-pilaketa dagoenean; gehienez ere sei hileko epe baterako izango da, hamabi hileko tarte batean.*

*.../...*

*3. Bitarteko funtzionarioak kargutik kenduko dira 63. artikuluan jasotako arrazoiaren bat dagoenean, eta, horrez gain, bere izendapena eragin zuen arrazoa indarrrik gabe geratutakoan*

*4. Artikulu honetako 1. zenbakiko a) letran jasotako egoeran, **bitarteko funtzionarioek diharduteneko plaza hutsak enplegu-eskaintzan sartu beharko dira, izendapena egin deneko ekitaldi horretan bertan, eta, hori horrela egitea posible ez bada, hurrengo ekitaldian, lanpostua amortizatzen ez bada behintzat.***

Beraz, aipatu Legearen 10.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, bitarteko funtzionarioen bidez hornitzen diren lanpostuak Lan Eskaintza Publikoan sartu behar dira, bitarteko funtzionarioa izendatzen den urtean edo hurrengoan, eta era finkoan hornitzen dira edota amortizatu egin behar dira.

Zentzu berean, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenei buruzko Testu Bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekreturen 128. artikuluan xedaturikoaren arabera, Toki-Korporazioek urtero ekitaldiari dagokion Lan Eskaintza Publikoa onartu eta argitaratu behar dute, aurrekontua onartu eta hilabeteko epe barruan, funtzio publikoak ezarritako legediarekin bat etorriz. Artikulu horren 2. atalak behin betiko pertsonala izendatzeko ondoko betebeharra ezartzen du:



*“2. No podrá nombrarse personal interino para plazas que no se hayan incluido en la oferta de empleo público, salvo cuando se trate de vacantes realmente producidas con posterioridad a su aprobación.*

*El personal que ostentare la condición de interino cesará automáticamente al tomar posesión como funcionarios de carrera los aspirantes aprobados en la respectiva convocatoria. Sólo podrá procederse al nombramiento del nuevo personal interino para las plazas que continúen vacantes una vez concluidos los correspondientes procesos selectivos.”*

**II.-** Aldi berean, aplikatu beharreko Funtzio Publikoko araudiari dagokionean, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutua arautzen duen urriaren 30eko 5/2015eko Errege Dekretu Legegilearen 7. eta 11 artikuluek Toki erakundeetako pertsonal laboralari dagokionean, ondokoa xedatzen du:

*“7. artikulua. Langile lan-kontratudunei aplikatu beharreko araudia.*

*Administrazio publikoen zerbitzuan diharduten langile lan-kontratudunak arautzeko, lan-arloko legeriaz eta hitzarmenez aplikatu beharreko gainerako araez gain, estatutu honetako aginduak ere izango dira oinarri, hala xedatuta dagoenean.*

*11. artikulua. Langile lan-kontratudunak.*

*1. Langile lan-kontratudunak dira, lan-arloko legeriaren arabera langileak kontratatzeko edozein modalitate erabilia, idatziz formalizatutako lan-kontratu bati esker, administrazio publikoek ordaindutako zerbitzuak ematen dituztenak. Iraupenaren arabera, kontratua izan daiteke finkoa, mugagabea de aldi baterakoa.*

*2. Estatutu hau garatzeko emango diren Funtzio Publikoko legeetan ezarriko dira langile lan-kontratudunek zein lanpostutan jardun dezaketen finkatzeko irizpideak, betiere, 9.2 artikuluan ezarritakoa aintzakotzat hartuta”.*

Hortaz, kontratatzea proposatzen den langilea aldi baterako izaera duten lan kontratu bidez izango da, Langileen Estatutua arautzen duen urriaren 23ko 2/2015eko Errege Dekretu Legegilearen 15. artikuluan xedatutakoaren arabera, non bere 1. a) atalean aldi baterako iraupena duten kontratuak zerrendatzen dituenean, kasu honetan hutsik dagoen lanpostu bat ordezkatzeko kontratua aurreikusten den.

**III.-** Azken urteetako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituzten Legeek Herri Administrazioetan lan eskaintza publiko bidez pertsonal berria sartzeko mugak ezarri dituzte. Kasu honetan, 2018ko ekitaldirako, uztailaren 3ko 6/2.018 Legeak bere 19.



artikuluak Lan eskaintza publikoen inguruan erreposizio tasa sektore zehatz batzuetan bakarrik ahalbideratzen du betetzea.

Horregatik, lege honetatik ondorioztatu daiteke ezin dela 2018. urtean aipatu plaza hau behin betiko izaeraz bete, soilik behin-behineko izaeraz, eta 2019. urtean, erreposizio tasa betetzen badu Udalak, orduan hau behin betiko izaeraz hornitu ahal izango du.

**IV.-** Bestalde, aldi baterako izendapen zein kontratazioei dagokienez, aipatu uztailaren 3ko 6/2018 Legeak 2018. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen ditu. Bertan, aipatu Legearen 20. artikuluko bigarren apartatuak dioenaren arabera, ezin izango da egin aldi baterako kontrataziorik, ezta bitarteko funtzionariorik izendatu ere, baldin eta ez bada salbuespenezko kasuren bat, premiazko eta atzeraezinezko beharren bati erantzuteko; gainera, mugatuko dira lehentasunezko izaera duten edo funtsezko zerbitzu publikoen funtzionamenduetan eragina duten sektore, funtzio eta kategoria profesionaletara.

Horregatik, departamentu bakoitzeko txosten/proposamenak eduki behar ditu, gutxienez, hurrengo atal hauek:

- Proposatutako nahi den kontratazioak ohiz kanpokoak izan behar du eta ez inolaz ere kasu arrunta.
- Txostenean justifikatu eta arrazoitu egin behar dira kontratazioaren premia eta geroraezintasuna.
- Kontratazio proposamena mugatu egin behar da lehentasunezko izaera duten sektore, funtzio eta kategoria profesionaletara. Horretarako, justifikatu egin behar da lehentasun hori, kontuan izanda zure departamentuan une konkretu bakoitzean dauden beharrak.

Hori guztia kontuan hartuta, Txistulari Bandako zuzendariak txostenean alderdi horiek justifikatu ditu.

## **b) DEIALDIA ONARTZEKO ARAUAK**

Ildo honetatik, aipatu txistulari lanpostuak betetzeko oinarriak prestatu dira, Enplegatutako Publikoen Oinarrizko Estatutua arautzen duen urriaren 30eko 5/2015eko Errege Dekretu Legegilean oinarritzen den berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioetan oinarrituta, aipatu langilea kontratatzeko beharra eta urgentzia justifikatu ondoren.

Zentzu berean, Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen uztailaren 6ko 9/1989 Legearen 33. artikuluko ondorengoa xedatzen du: "33. atala.1. Bitarteko funtzionariak eta aldi baterako langilegoa arauz jarritako prozedurari jarraiki aukeratuko dira, agiritasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasun-erizpideak kontutan izanik eta ahalik eta bizkorren jokatzeko saiaturik. Dena dela, bitarteko eta aldi baterako langilegoak titulaziori buruzko eskakizun nagusiak eta aldikotasunez beteko duten lanpostura iristeko edo bete behar duten egitekorako eskatutako gainerako baldintzak bete beharko dituzte."



TOLOSAKO  
UDALA

### c) ONARTZEKO PROZEDURA

Batetik, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 g) artikulua arabera, alkateak eskuduntza du gai hau onartzeko, baina bestetik, 2015eko uztailaren 28an Alkateak berak emandako ebazpenaren bidez, Toki Gobernu batzarrean delegatu zuen oinarriak onartzeko eskuduntza; hortaz, organo honek onartu beharko ditu deialdia arautzen duten oinarriak.

Aurreko guztia aintzat harturik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Onartzea Txistulari Bandako lan-poltsa osatzeko deialdia eta oinarriak, eta dagokion publizitatea ematea. Oinarriak hauek dira:

### **1.- Deialdiaren helburua.**

*Deialdi honen helburua da lan poltsa osatzea Tolosako Udal Txistulari Bandak izan ditzakeen aldi baterako beharrei erantzuna emateko kontratazioak egiteko. Bi izango dira eskainiko diren espezialitateak: txistua-silbotea eta atabala-perkusioa.*

*Tolosako Udal Txistulari Bandako gainerako langileen hitzarmen bera aplikatuko zaie aldi baterako kontratazioei. Eguneko lanaldia Tolosako Udalak ezarritakora egokituko da, lanpostuaren ezaugarrien arabera eta Tolosako Udal Txistulari Bandaren betebeharren arabera izango dira, eta igande eta jaiegunetan ere lan egin beharko da zerbitzu beharrek hala eskatzen dutenean.*

*Halaber, hautaketa prozesua gainditzen duten izangaien zerrenda, Tolosako Udalak lan poltsa bezala erabili ahal izango du sor daitezkeen behin-behineko beharrei erantzuteko.*

### **2.- Kontratuaren ezaugarriak.**

*Lanpostua betetzeko hautatutako izangaiari lanegun partzialeko lan kontratua egingo zaio, % 16ko lanaldiarena hain zuzen ere, plaza bete edo amortizatu bitartean. Urteko ordainsariak 5.345,54 euro gordin izango dira.*

### **3.- Betebeharrak.**

*Hautaketa probetan parte hartzeko hurrengo baldintza hauek bete behar dituzte izangaiak:*

a) *Europar Batasuneko edozein Estatuko nazionalitatea izatea.*



TOLOSAKO  
UDALA

b) 16 urte beteta izatea.

c) Ondoko tituluren bat izatea:

-Txistu espezialitateko erdi mailako irakasle titulua, 2618/66 Dekretuaren arabera, edo indarrean dagoen legeriaren arabeko titulu baliokidea.

-Perkusio espezialitateko erdi mailako irakasle titulua, 2618/66 Dekretuaren arabera, edo indarrean dagoen legeriaren arabeko titulu baliokidea.

-Diplomatura edo lizentziatura mailako ikasketak edo baliokideak.

d) Euskarako 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatzea. Baldintza hau egiaztatu behar da dagozkion proben bitartez; proba horietatik salbuetsita egongo dira eskatutako titulazioa daukatela egiaztatzen dutenak.

e) Lanpostuaren eginkizunak modu normalean burutzea eragozten duen gaixotasun edo ezintasun fisikorik ez edukitzea. Baldintza hau dagozkion unean frogatu beharko da, lanpostuak betetzeko aukeratutako hautagaiei egingo zaien azterketa medikoaren bidez.

f) Diziplinako espediente bidez inongo Administrazio Publikoren zerbitzutik baztertua ez izana, edota funtzio publikoan aritzeko desgaituta ez egotea.

Goian adierazitako baldintza guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen denerako bete behar dira.

#### **4.- Eskaera aurkezpena eta dokumentuen egiaztatpena.**

Eskaera aurkeztu behar da Tolosako Udaleko Informazio Bulegoan eskuratu daitekeen eredu ofizial eta normalizatuaren arabera. Hautaketa probetan parte hartzeko eskaerak Tolosako Udaleko alkate-lehendakariari zuzendu behar zaizkio.

Izangaiek adierazi behar dute betetzen dituztela deialdiaren 3. oinarrian ezarrita dauden baldintza guztiak, beti ere eskaerak aurkezteko azken eguna erreferentzia bezala hartuz. Gainera, eskaerarekin batera hurrengo agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) NANaren fotokopia.

b) Hirugarren oinarriko c) ataleko tituluaren fotokopia.

c) Hala badagokio, deialdiko bigarren oinarriko d) atalean aipatzen diren Euskararen titulu edo ziurtagirietako baten fotokopia, euskararen proba egitetik salbuetsita gelditu ahal izateko.

d) Era berean, alegatzen diren balorakizun guztien frogagiriak eskaerarekin batera aurkeztu behar dira. Ez dira baloratuko instantzian zehaztu eta frogatzen ez diren merituak, beti ere eskaerak aurkezteko epearen barruan.

Eskaerak aurkeztu behar dira, behar bezala beteta, Tolosako Udaletxeko Erregistroan – Plaza Zaharra 6, B– edo bestela, 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, bere 16.4 artikuluan aurreikusitako moduren batean, 15 egun naturaleko epearen barruan, honako oinarri hauek gutxienez Gipuzkoako bi egunkaritan argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.



TOLOSAKO  
UDALA

## **5.-Hautagaien onarpena**

Onartu eta baztertuen zerrenda, Tolosako udaleko iragarki taulan argitaratuko da, eta hiru lanegunetako epea izango dute izangaiek erreklamazioen bat aurkezteko edota akatsik balego, hauek zuzentzeko.

Erreklamazioei erantzuna emango zaie hautagaien onartuen eta baztertuen zerrenda onartzen den ebazpenean, bertan lehen frogaren ordua, tokia eta eguna azalduko delarik.

## **6.- Euskarako frogia**

Modu dokumentatuan hala frogatu ez duten parte-hartzaileek Tolosako Udaletxean agertu behar dute euskararen ezagutza akreditatzeko probak egiteko esandako ordu eta egunean. Posturako behar den euskara maila 3. hizkuntz eskakizunari dagokiona da.

Azterketa horrek ez du balio ofizialik izango 3. hizkuntz eskakizuna akreditatze aldera; lanpostu honetako aukeraketa-prozesuan parte hartzeko baino ez du balio izango.

## **7.- Hautaketa-fasea**

**1.- Oposizio-fasea:** Derrigorrezkoak eta baztertzaileak diren bi ariketa eta elkarrizketa bat egin behar dira oposizioan.

### **A) Espezialitatea: Txistua-silbotea**

**Lehenengo ariketa:** Derrigorrezkoa eta baztertzailea.- 15 puntura arte baloratuko da ariketa eta gutxienez 7,5 puntu lortu behar dira gainditzeko.

- Espezialitate honetako hautagai bakoitzak, txistua eta danbolinarekin Santos Intxaustiren 4<sup>a</sup> kontrapasa jo beharko du.

**Bigarren ariketa:** Derrigorrezkoa eta baztertzailea.- 15 puntura arte baloratuko da ariketa eta gutxienez 7,5 puntu lortu behar dira gainditzeko.

- Espezialitate honetako hautagaiek, silbotearekin, txistularien errepertorioan ohikoak eta tradizionalak diren erritmoak jo beharko dituzte Udal txistulari bandarekin batera. Adibidez: Alkate Soinaua, fandangoa, arin arina, kalejira eta zortzikoa. Tolosako Udal Txistulari Banda hautagaien eskura egongo da ariketa hau egiteko.

### **B) Espezialitatea: Perkusioa - atabala**

**Lehenengo ariketa:** Derrigorrezkoa eta baztertzailea.- 15 puntura arte baloratuko da ariketa eta gutxienez 7,5 puntu lortu behar dira gainditzeko.

Espezialitate honetako hautagai bakoitzak, derrigorrezko bi obra edo epaimahaiak erabakitako berauen zatiak jo beharko ditu: Marinbarako Ten Shorts Songs eta kaxarekin 11 klase.



TOLOSAKO  
UDALA

**Bigarren ariketa:** Derrigorrezkoa eta baztertzaila. - 15 puntura arte baloratuko da ariketa eta gutxienez 7,5 puntu lortu behar dira gainditzeko.

- *Espezialitate hontako hautagaiak, atabalarekin, txistularien errepertorioan ohikoak eta tradizionalak diren erritmoak jo beharko dituzte. Adibidez: Alkate Soinua, fandangoa, arin arina, kalejira eta zortzikoa. Tolosako Udal Txistulari Banda hautagaien eskura egongo da ariketa hau egiteko.*

Oposizio aldiko obra hauen partiturak udaleko web orrian jarriko dira hautagaien eskura.

## 2.- Konkurtso fasea

Gehienez 8 puntu eman ahal izango dira.

1. Lan eskarmentua: lortu nahi den lanpostuari dagokion plazan txistulari bandako kide izatea: 0,2 puntu hileko. Gehienez 4 puntu eskuratu ahal izango dira.
2. Bestelako merituak, baldin eta adierazi badira eta egiaztagirik badute, 4 puntu, gehienez, hurrengo baremo hauei jarraituz:
  - Emandako kontzertuak. Bakoitzeko, 0,25 puntu; gehienez, 2 puntu.
  - Egindako grabazioak. Bakoitzeko, 0,25 puntu; gehienez, 2 puntu.

## **8.- Epaimahaia**

Epaimahai kalifikatzailea era honetan egongo da osatuta:

LEHENDAKARIA: Udal idazkaria edo berak izendatutako ordezkaria.

MAHAIKIDEAK:

- Tolosako Udal Txistulari Bandako zuzendaria edo berak izendatutako ordezkaria.
- Tolosako Udal Txistulari Bandako perkusiojolea edo berak izendatutako ordezkaria.
- Espezialitateetan aditu den kide bat edo berak izendatutako ordezkaria.
- Euskara Zerbitzuko burua, euskarako probarako.

IDAZKARIA: GGBBetako teknikaria edo berak izendatutako funtzionarioa.

Bertan egon ahal izango dira, begirale moduan, Udalean dauden alderdi politikoetako ordezkariak eta sindikatu etako ordezkariak.

Epaimahaiaren osaketan ahaleginak egingo dira emakumeen eta gizonen partaidetza orekatzeko, beti ere gaitasun, eskuduntza eta prestakuntza egokiarekin. Lau kidetik gorako epaimahaietan ordezkari itza orekatua izango da, baldin eta sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkari itza badu.





TOLOSAKO  
UDALA

*Epaimahaikideak alkateak izendatuko ditu onartutako eta kanporatutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzen duen ebazpenean, eta jendaurrean jarriko dira bai Iragarki Taulan bai Udalaren web orrian, 4. oinarrian adierazten den bezala.*

*Epaimahaiaren osaketan zaindu beharko da inpartzialtasun, espezialitate eta profesionaltasun printzipioak bete daitezela, eta joko da, halaber, gizonen eta emakumeen arteko parekotasunera.*

*Egoki irizten den probetan, Epaimahaiak dagokion gaian adituak diren aholku-emaileen laguntza eskatu ahal izango du; aholkulari aditu horiek hitza bai baina botoa emateko eskubiderik ez dute izango.*

*Aholkulariek beren espezialitate teknikoetan soilik lagundu ahal izango dute. Epaimahaikideek parte hartzeari uko egin behar diote, eta alkateari uko horren berri eman, baldin eta berengan gertatzen bada Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aipatzen diren egoeretako bat.*

*Epaimahaiak lehen aipatutako Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulutik 18. artikulura bitarte ezarritako araei jarraituz jardungo du. Edozein kasutan ere, epaimahaiburuaren aginduz Idazkariak deialdia egin ondoren bilduko da*

*Epaimahaia, hautaketa probei ekin aurretik behar besteko aurrerapenarekin.*

*Epaimahaia legez eratzat jotzeko, bertan egon beharko dute Epaimahaiburuak eta Idazkariak, edo horien ordezkioak, eta gutxienez mahaikideen erdiak. Erabakiak hartzeko, bertaratutako botoen gehiengoa beharko da. Epaimahaikide guztiak hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute.*

*Berdinketak Epaimahaiburuaren kalitatezko botoak erabakiko ditu. Epaimahaiak autonomia funtzional osoz jardungo du, prozedura legez bete dadin begiraturaz eta objektibotasuna bermatzeaz arduraturaz.*

*Epaimahaiak erabateko independentziarekin, diskrezionaltasun teknikoarekin eta objektibotasunarekin jardungo du eta organo eskudunak haren izendapen-proposamenak bete beharko ditu.*

*Era berean, oinarri hauek aplikatzerakoan gerta daitezkeen zalantza guztiak antolamendu juridikoan ezarritakoaren arabera argituko ditu; eta deialdia egoki garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusi ez diren balizkoetan jarraitu beharreko irizpideak ezarriz.*

#### **9- Onartuen zerrenda eta dokumentuen aurkezpena.**

*Izangai bakoitzaren bukaerako kalifikazioa oposizioaldian lortutako puntuak batuz aterako da. Puntuazioan berdinketarik gertatuz gero, berdinketa hausteko irizpideren bat behar izanez gero, Epaimahai Kalifikatzaileak ezarriko du irizpide hori, merezimendu eta gaitasunaren printzipioarekin bat etorriz.*

*Era berean, hautaketa-prozesu hau gaingitu dutenek lan-poltsa bat osatuko dute, lanpostu berdinak edo antzekoak betetzera zuzenduta, Udalaren beharren arabera.*

*Izendatu aurretik, interesdunari honako dokumentazio hau aurkezteko eskatuko zaio:*



TOLOSAKO  
UDALA

*-NAN originala edo fotokopia.*

*-Deialdi honetan exijitutako ikasketa titulu originala edo fotokopia.*

*-Dagokion hizkuntz eskakizunaren egiaztatari originala edo fotokopia.*

*-Erantzukizunpeko adierazpena, diziplinazko espedientearen bidez Autonomia Erkidegoetako Administrazio Publikoetako edo organo konstituzionaletako edo organo estatutarioetako zerbitzutik baztertuta ez egotearena; eta ebazpen judizial bidez ezgaitasun erabatekoa edo berezia ez izatearena enplegu edo kargu publikoetarako, eta 53/1984 Legean eta 598/1985 Errege Dekretuan aurreikusitako bateraezintasun-arrazoiren batean sartuta ez egotea.*

*-Ziurtagiri medikoa, egiaztatuko duena ez duela gaixotasun edo akats fisiko nahiz psikikorik lanpostuaren berezko eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten dionik.*

*-Sexu-delituen ziurtagiria.*

*Epaimahaiaren iritziz izangaien maila ez bada egokia deialdiko lanpostua behar bezala betetzeko, deialdia hutsik utzi lezake.*

#### **10- Deialdiak eta jakinarazpenak**

*Hautaketa-prozesuko probak egiteko deialdiak, baita Epaimahai Kalifikatzaileak egin beharreko jakinarazpen eta komunikazio guztiak ere, Tolosako Udaletxeko iragarki-taulan eta Tolosako Udalaren web-orrian argitaratuz emango dira jakitera.*

#### **11- Kontratazio proposamena**

*Epaimahai Kalifikatzailearen erabakiaren bidez, proposamenaren emaitza Tolosako Udalaren web-orrian eta iragarki-taulan argitaratuko da eta erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamar laneguneko epea izango dute lehiatzaileek haren aurkako erreklamazioak aurkezteko.*

*Erreklamazio horiek Epaimahai Kalifikatzaileak ebatziko ditu. Erreklamazioak eta ezespenak aurkezteko epea amaitutakoan, Epaimahai Kalifikatzaileak horien gaineko ebazpena emango du, merezimendu-lehiaketaren xede den lanpostua esleitzeko behin betiko proposamena egingo du eta proposamen hori alkateari bidaliko dio.*

*Aurrerantzean, Tolosako Udal Txistulari Bandan sor daitezkeen aldi baterako beharrak betetzeko, emaitzen arabera hurrenkera errespetatuz egingo dira kontratazioak, beti ere hautagaiak lan eskaintza onartzen badu.*

#### **12- Gorabeherak**

*Epaimahaiak ahalmena izango du ebazteko sortzen diren zalantzak eta, era berean, erabakiak hartzeko, hautaketa prozesua behar bezala gauzatzeko, Oinarri hauetan aurreikusten ez diren gaietan.*

**BIGARRENA.**- Erabaki hauek Kontuhartzailatza eta Giza Baliabideetako Departamentuari jakinaraztea.



TOLOSAKO  
UDALA

### **3. 2019/622 DEKRETUAREN BERRI EMATEA (2019/16 FAKTURA-ZERRENDA).**

Idazkariak 2019/662 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

#### **ALKATEAREN DEKRETUA**

**Zk.: 2019/622**

*Tolosa Udaleko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabalek emana.*

*21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.*

*Hori horrela, alkateari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2019ko honako faktura-zerrenda hau:*

*16 zenbakia duena, 83.224,38 eurokoa.*

*Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.*

*Kontuan izan behar da, era berean, alkateak duela gastuak onartzeko ahalmena (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 21.1 f) artikulua. 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoa; 41. 2 artikulua).*

*Horiek horrela, alkateak ondorengo hau*

**EBATZI DU:**

**LENEHIK.-** *Onartzea ondorengo faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

*16 zenbakia duena, 83.224,38 eurokoa.*

**BIGARREN.-** *Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.*

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



TOLOSAKO  
UDALA

#### **4. 2019/660 DEKRETUAREN BERRI EMATEA (2019/17 ETA 2019/18 FAKTURA-ZERRENDAK).**

Idazkariak 2019/660 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

##### **ALKATEAREN DEKRETUA**

**Zk.: 2019/660**

*Tolosa Udaleko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabalek emana.*

*21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatzetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.*

*Hori horrela, alkateari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2019ko honako faktura-zerrenda hauek:*

*17 zenbakia duena, 5.460,18 eurokoa.*

*18 zenbakia duena, 98.534,30 eurokoa.*

*Zerrenda horietan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoak daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.*

*Kontuan izan behar da, era berean, alkateak duela gastuak onartzeko ahalmena (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 21.1 f) artikulua. 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoa; 41. 2 artikulua).*

*Horiek horrela, alkateak ondorengo hau*

##### **EBATZI DU:**

**LENEHIK.-** *Onartzea ondorengo faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

*17 zenbakia duena, 5.460,18 eurokoa.*

*18 zenbakia duena, 98.534,30 eurokoa.*

**BIGARREN.-** *Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.*

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

#### **5. ALKATETZA DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2019KO APIRILAREN 5ETIK 30ERA (DK2019/570-2019/691).**

Alkatetzak 2019ko apirilaren 5etik 30era bitartean (DK 2019/570-2019/691) egin dituen dekretu hauen berri eman zaie bertaratutakoei. Honakoak dira:



| ZKA | AÑO  | EGUNA      | DEPARTAMENTUA     | OHARRA   |
|-----|------|------------|-------------------|--|
| 570 | 2019 | 05/04/2019 | HIRIGINTZA        | 15.1. TOLOSANA-IGARONDO" AZPIESPARRUAN URBANIZAZIOKO 2. FASEA JASO ETA ABAL BAT ITZULTZEA              |
| 571 | 2019 | 05/04/2019 | HIRIGINTZA        | ERREMENTARI KALEA 36KO ERAIKINAREN BANAKETA HORIZONTALAREN ESKAERAKO AGIRIAK OSATZEKO ERREKERIMENDUA   |
| 572 | 2019 | 05/04/2019 | HIRIGINTZA        | ERREMENTARI KALEA 9KO EIT TXOSTENEAN JASOTAKOA BETETZEKO EGIKARITZE AGINDUA                            |
| 573 | 2019 | 05/04/2019 | IDAZKARITZA       | PLAZA BERRIKO 79 GARAJEAREN TITULARTASUN ALDAKETAREN INGURUAN JAKINARAZPENA EGITEA                     |
| 574 | 2019 | 05/04/2019 | HIRIGINTZA        | 15.1. TOLOSANA-IGARONDO" AZPIESPARRUAN EGIN DIREN ETZEBIZITZARI LEHEN ERABILERA KO BAIMENA EMATEA      |
| 575 | 2019 | 05/04/2019 | EUSKERA           | KORRIKA AFARIA EGITEKO BAIMENA   |
| 576 | 2019 | 05/04/2019 | DIRU-BILKETA      | 26370 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAREN ITZULKETA   |
| 577 | 2019 | 05/04/2019 | HIRIGINTZA        | ERREMENTARI KALEA 9KO BALKOJETAKO LAUZAK ETA TEILATUAN HAINBAT KONPONKETA EGITEKO OBRA BAIMENA         |
| 578 | 2019 | 05/04/2019 | UDALTZAINGOA      | BELENA PATIOKO GILTZA BERRI BATEN ESKAERA  |
| 579 | 2019 | 05/04/2019 | HIRIGINTZA        | TOLDOA LEGEZTATZEKO ERREKERIMENDUA NAFARROA ETORBIDEA 10 BEHEAN  |
| 580 | 2019 | 05/04/2019 | HIRIGINTZA        | SANTA KLARA KOMENTUAN ESKAILERAK ERREFORMATZEKO LIZENTZIA EMATEA                                       |
| 581 | 2019 | 05/04/2019 | HIRIGINTZA        | USABAL AUZOKO 212 PABILOIA LEGEZTATZEA ETA LEHEN ERABILERA KO BAIMENA EMATEA                           |
| 582 | 2019 | 05/04/2019 | UDALTZAINGOA      | ETXE ABEREEN ORDENANTZAREN ARAU-HAUSTEA  |
| 583 | 2019 | 05/04/2019 | GAZTEDIA          | KAZKABARRA TALDEARI 2018KO DIRULAGUNTZAREN KITAPENA ETA BIGARREN ZATIAREN ORDAINKETA ONARTZEA          |
| 584 | 2019 | 05/04/2019 | KONTUHARTZAILZETA | TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEN ZERGA. FAMILIA UGARIA 2019TMIF0002 ESPEDIENTEA.                  |
| 585 | 2019 | 05/04/2019 | KONTUHARTZAILZETA | ONDAZUN HIGEZINEN ZERGA. FAMILIA UGARIA HOBARIA, 2019OHZF0001 ESPEDIENTEA.                             |
| 586 | 2019 | 05/04/2019 | KONTUHARTZAILZETA | ONDASUN HIGIEZINEN GAINEN ZERGA. EZ ONARTUAK.  |
| 587 | 2019 | 05/04/2019 | KONTUHARTZAILZETA | ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA. FAMILIA UGARIAK ESKARI BERRIAK   |
| 588 | 2019 | 05/04/2019 | AZOKAK            | ARANTXA GARAIBURURI BAIMENA EMATEA ZERKAUSIAN ARKUMEEN ENTREGA EGITEKO                                 |
| 589 | 2019 | 05/04/2019 | HIRIGINTZA        | ERREKERIMENDUA EDUKINONTZIA BAIMENIK GABE JARRI DUELA KO KORREO KALEA 6AN                              |
| 590 | 2019 | 05/04/2019 | GAZTEDIA          | U.O.C.-RI 2018KO GAZERIAKO DIRULAGUNTZAREN KITAPENA ONARTZEA ETA BIGARREN ZATIAREN ORDAINKETA ONARTZEA |



| ZKA | AÑO  | EGUNA      | DEPARTAMENTUA      | OHARRA  |
|-----|------|------------|--------------------|---|
| 591 | 2019 | 05/04/2019 | ALKATETZA          | NOTICIAS DE GIPUZKOA. ERREPORTAIA.  |
| 592 | 2019 | 05/04/2019 | ALKATETZA          | ALEKA UDAL ALDIZKARIAREN 7. ALEAREN ORDAINKETA.   |
| 593 | 2019 | 05/04/2019 | IDAZKARITZA        | ALONDEGIKO APARKALEKUKO C-29 APARKALEKUAREN ERABILERA ESKUBIDEAREN GEHIENENKO PREZIOA EMATEA  |
| 594 | 2019 | 08/04/2019 | GIZARTE ZERBITZUAK | IURREAMENDI EGOITZA: OTSAILEKO FAKTURA ORDAINDU   |
| 595 | 2019 | 08/04/2019 | HIRIGINTZA         | LARRAMENDI 3A-1E ETXEBIZITZAN OBRAK EGITEA BARNE-BANAKETAREKIN BAIMENA EMATEA   |
| 596 | 2019 | 08/04/2019 | HIRIGINTZA         | URBANIZAZIO, ERAIKUNTZA ETA INGURUMENA, PAISAIA ETA NATURA BABESTEKO UDAL ORDENANTZETAKO 111. ARTIKULUA ALDATZEKO PROPOSAMENARI ERANTZUNA |
| 597 | 2019 | 08/04/2019 | PERTSONALA         | GIZARTE ZERBITZUETAKO ADMINISTRARIA   |
| 598 | 2019 | 08/04/2019 | HIRIGINTZA         | ERREKERIMENDUA NAFARROA ETORBIDEA 10-BEHEAN ERAKUSLEKUA   |
| 599 | 2019 | 08/04/2019 | KONTUHARTZAILTZA   | 14 ETA 15 ZK.DUN FAKTUREN ZERRENDAK ONARTZEA  |
| 600 | 2019 | 08/04/2019 | IDAZKARITZA        | TOLOSAKO UDALEKO HERRITARREN ARRETA ZERBITZUAN -UDATE- ZIURTAGIRI-MAKINA BAT HORNITZEKO ETA MANTENTZEKO KONTRATUA                         |
| 601 | 2019 | 08/04/2019 | IDAZKARITZA        | BAIMENA EMATEA ALHONDEGIKO C-42 APARKALEKUAREN EMAKIDA ESKUBIDEAREN TITULARTASUNA ESLEITZEKO  |
| 602 | 2019 | 08/04/2019 | HIRIGINTZA         | KALE NAGUSIA 23 ERAIKINEKO SEGURTASUN NEURRIAK HARTZEKO EGIKARITZE AGINDUA  |
| 603 | 2019 | 08/04/2019 | ENPLEGUA           | DIONISIO ORMAZABAL, S.A. ENPRESAREN AURREKARIA BERTAN BEHERA USTEA  |
| 604 | 2019 | 08/04/2019 | IDAZKARITZA        | UZZURRE 7-4A ETXEBIZITZA TASATUAREN GEHINEZKO PREZIOA JAKINARAZTEA  |
| 605 | 2019 | 09/04/2019 | IDAZKARITZA        | JAVI LASAREN ONDARE ERANTZUNKIZUNA  |
| 606 | 2019 | 09/04/2019 | KULTURA            | ISIDRO LARRAÑAGA AKORDEOI ORKESTRARI LEIDOR UZTEA MAIATZAREN 10EAN POSTAL KOLEKZIONISTAK TALDEAREN EMANALDIA ANTOLATZEKO                  |
| 607 | 2019 | 09/04/2019 | ENPLEGUA           | 2019-2020 ENPLEGU PLANEKO ARDURA TOLOSALDEA GARATZENI EMATEA.   |
| 608 | 2019 | 09/04/2019 | FESTAK             | UDABERRI DANTZA TALDEARI 2019KO APIRILAREN 13AN DANTZARI TXIKIA ETA ERROMERIA ANTOLATZEKO BAIMENA EMATEA.                                 |
| 609 | 2019 | 09/04/2019 | KONTUHARTZAILTZA   | ONDASUN HIGIEZINEN GAINENKO ZERGAREN SUBJEKTU PASIBOEI BIZIGUNE PROGRAMAN EGOTEAGATIK HOBATIA EMATEA 2019. URTEAN.                        |
| 610 | 2019 | 09/04/2019 | KONTUHARTZAILTZA   | 3033520C ZENBAKI FINKO DUEN ETXEBIZITZARI BIZIGUNE PROGRAMAN EGOTEAGATIK HOBARIA 2019. URTEAN EZ EMATEA.                                  |
| 611 | 2019 | 09/04/2019 | KONTUHARTZAILTZA   | OBRA BITARTEKO LAGUNGARRIAK BIDE PUBLIKOAN JARTZEAGATIK EGINDAKO LIKIDAZIOA ALDATZEKO ESKAERA ONARTZEA.                                   |



| ZKA | AÑO  | EGUNA      | DEPARTAMENTUA      | OHARRA  |
|-----|------|------------|--------------------|---|
| 612 | 2019 | 09/04/2019 | KONTUHARTZAILLETZA | 1230-JJT MATRIKULADUN IBILGAILUAREN SALBUESPENA EZ EMATEA 2019. URTEAN.   |
| 613 | 2019 | 09/04/2019 | HIRIGINTZA         | ISURKETA BAIMENA EMATEA LARRAMENDI KALEA 30-32  |
| 614 | 2019 | 09/04/2019 | FESTAK             | EGI GAZTE ERAKUNDE POLITIKOARI 2019KO APIRILAREN 13AN ALONDIGA PLAZAREN ETA PLAZA BERRIAREN ERABILERA UZTEA.  |
| 615 | 2019 | 09/04/2019 | AZOKAK             | KILOMETROAK 2019KOEI BAIMENA EMATEA POSTUA JARTZEKO APIRILAREN 13AN   |
| 616 | 2019 | 09/04/2019 | HIRIGINTZA         | RONDILLA 16KO EUSKAL HERRIA PLAZARAKO BALKOJETAN SEGURTASUN NEURRIAK HARTU ETA KONPONKETA OBRAK EGITEKO BAIMENA   |
| 617 | 2019 | 09/04/2019 | IDAZKARITZA        | TOLOSAKO ELEKTRIZITATE-BANATZAILEAREN ZERBITZU ETA BALIABIDEEN ANTOLAKUNTZA-EGITURAREN ANALISIA, DAGOKION SEKTOREKO ARAUBIDEAN EZARRITAKO ARLOAK, ENPRESAREN GARAPEN HELBURUAK ETA SEKTORE ELEKTRIKOKO ETORKIZUNENKONTRATATZEA. |
| 618 | 2019 | 10/04/2019 | AZOKAK             | MERKATARITZA BIZIBERRITZEKO PLANA   |
| 619 | 2019 | 10/04/2019 | HIRIGINTZA         | ISASTEGI SAGARDOTEGIA HANDITZEKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO ERREKERIMENDUA EGITEA   |
| 620 | 2019 | 10/04/2019 | FESTAK             | OLARRAIN LAGUN ARTEAN AUZO ELKARTEARI FESTAK ANTOLATZEKO 2018KO DIRULAGUNTZA ONARTZEA ETA ORDAINTZEA.   |
| 621 | 2019 | 10/04/2019 | KULTURA            | LEIDOR ARETOAN, MARTXOKO FILMEN ALOKAIRUAGATIK FIDES NORTE S. COOP. ENPRESAREN FC2019051 FAKTURA ONARTZEA   |
| 622 | 2019 | 10/04/2019 | KONTUHARTZAILLETZA | 16.ZK.DUN FAKTUREN ERLAZIOAN AZALTZEN DIREN FAKTURAK ONARTU ETA ORDAINTZEKO   |
| 623 | 2019 | 10/04/2019 | HIRIGINTZA         | IURREAMEDI EGOITZARI SARRERA DAGOEN TXABOLA KENTZEKO AGINDUA BIALTZEA   |
| 624 | 2019 | 10/04/2019 | GIZARTE ZERBITZUAK | 2018. URTEKO PRESOEN FAMILIENTZAKO DIRULAGUNTZEN ESKAERAK ONARTU ETA ORDAINDU.  |
| 625 | 2019 | 10/04/2019 | HIRIGINTZA         | BASOLANAK EGITEKO HERRI BIDEAK ERABILTZEKO BAIMENA EMATEA. ARRETXE LORATEGIAK   |
| 626 | 2019 | 10/04/2019 | IDAZKARITZA        | GIZARTE ZERBITZUTAKO KALTEAREN FRANKIZIA ESKATZEKO NOTARITZARAKO PODEREA  |
| 627 | 2019 | 10/04/2019 | IDAZKARITZA        | 2019ERRE0012 KALTE ERREKLAMAZIOAREN HASIERA.  |
| 628 | 2019 | 10/04/2019 | PERTSONALA         | MARTXOKO GIZARTE SEGURANTZAREN LIKIDAZIOAK ONARTZEA   |
| 629 | 2019 | 11/04/2019 | KONTUHARTZAILLETZA | 2018/1894 DEKRETUAREN KONTRA AURKEZTUTAKO AURKERAKO BERRAZTERTZE-ERREKURTSOA EZ ONARTZEA.   |
| 630 | 2019 | 11/04/2019 | HIRIGINTZA         | SAN FRANTZISKO 19-1D ETXEBIZITZAN OBRAK EGITEKO LIZENTZIA EMATEA  |



| ZKA | AÑO  | EGUNA      | DEPARTAMENTUA      | OHARRA  |
|-----|------|------------|--------------------|---|
| 631 | 2019 | 11/04/2019 | ENPLEGUA           | 2017-2018 ENPLEGU PLANEKO 2.ORDAINKETAK ONARTZEA  |
| 632 | 2019 | 11/04/2019 | HIRIGINTZA         | SAN FRANTZISKO 19-1D BANANTZEKO LIZENTZIA EMATEA  |
| 633 | 2019 | 12/04/2019 | HIRIGINTZA         | 2098 DEKRETUAREN KONTRA JARRITAKO ERREKURTSOA ONARTZEA. GURE IZARRA ETXEA. MONTESKUE  |
| 634 | 2019 | 12/04/2019 | HIRIGINTZA         | GORRITI PLAZAKO EXPROPIAZIOAREN ESPEDIENTEAN EXPROPIAZIOAKO JURADOAN PARTE HARTZEKO ABOKATUAREN IZENDAPENA  |
| 635 | 2019 | 12/04/2019 | KONTUHARTZAILTZA   | AGARAMUNDU KALEA 7, KONDEANEKO ALDAPA 11 ETA EUSKAL HERRIA 1B ETXEBIZITZETAKO 2019KO MAIATZAKO ALOKAIRUAK ETA KOMUNITATE GASTUEN LIKIDAZIOAK ONARTZEA.                  |
| 636 | 2019 | 12/04/2019 | FESTAK             | LARRAMENDI BIZIRIK AUZOKIEEN ELKARTEARI 2018KO DIRULAGUNTZAREN KITAPENA ONARTZEA ETA BIGARREN ZATIAREN ORDAINKETA ONARTZEA.   |
| 637 | 2019 | 12/04/2019 | IDAZKARITZA        | BAIMENA EMATEA TOLOSAKO ALHONDEGIKO 40 (-2) APARKALEKU PLAZAREN ERABILERA ESKUBIDEA ESKUALDATZEKO   |
| 638 | 2019 | 12/04/2019 | GIZARTE ZERBITZUAK | ABEGI ELKARTEAK 2018KO HELBURUAK ONDO BETE DUELA ETA FISKALIZAZIO EGIN ONDOREN 5.426,23€ ITZULTZEKO 2019KO DIRULAGUNTZATIK DESKONTATZEKO ESKAERA ONARTZEA.              |
| 639 | 2019 | 12/04/2019 | AZOKAK             | GIPUZKOAKO MERKATARITZA FEDERAZIOAREKIN HITZARMENAREN SINADURA 2019.  |
| 640 | 2019 | 12/04/2019 | ZERBITZUAK         | TOLOSAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN KONTRATUA LUZATZEA  |
| 641 | 2019 | 15/04/2019 | ALKATETZA          | GAZTERIAKO DIRULAGUNTZEN 2019KO DEIALDIA ONARTZEA   |
| 642 | 2019 | 15/04/2019 | KULTURA            | AZKEN MUGA ELKARTEARI DIRULAGUNTZA KOPURUA ALDATZEA, TALDEAK AURKEZTUTAKO JUSTIFIKAZIO TXOSTANAREN ONDOREN.   |
| 643 | 2019 | 15/04/2019 | HIRIGINTZA         | SANTA KLARA 7 ETA 8 JABEKIDEEI, BI ERAIKINEN ZENBAKIEN ARTEKO MEHELINAKO PITZADUREN JARRAIPENA EGITEKO EGIKARITZE-AGINDUA BIALTZEA                                      |
| 644 | 2019 | 15/04/2019 | HIRIGINTZA         | SAN BLAS SUBESTAZIO ELEKTRIKOA ALDATZEKO LIZENTZIA EMATEA   |
| 645 | 2019 | 15/04/2019 | KONTUHARTZAILTZA   | BALIO ANITZEKO ETXEBIZITZA SOZIALEN 2019KO APIRILAN ERROLDAN ONARTZEA.  |
| 646 | 2019 | 15/04/2019 | OBRAK              | ANDER AGIRREZABALA VITORIA ETA LAURA CASI LACUNZA ARKITEKTOAK KONTRATATZEA ENPERADORE KALEA 7, ABEDI BEHEKO LOKALA EGOKITZEKO OBREN EXEKUZIO PROIEKTU IDAZKETA EGITEKO. |
| 647 | 2019 | 16/04/2019 | HIRIGINTZA         | GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO ERREPIDEETAKO ZARATAREN AURKAKO EKINTZA PLANAREN INGURUKO ALEGAZIOAK ONARTZEA   |
| 648 | 2019 | 16/04/2019 | GIZARTE ZERBITZUAK | APIRILEKO GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZA MODUAN   |





| ZKA | AÑO  | EGUNA      | DEPARTAMENTUA      | OHARRA   |
|-----|------|------------|--------------------|--|
|     |      |            |                    | MANTENUA, ENERGIA, OINARRIZKO PREMIEN ETA ZORPETZEEN ESKAERA: D3-E4-N4   |
| 649 | 2019 | 16/04/2019 | HIRIGINTZA         | RONDILLA KALEA 23 BEHEKO "GOYA" HARATEGIKO LAECOR ENPRESAREN SOINU NEURKETAREN KOPIA EMAN ION ALTUNA AROSTEGIRI, UDALTAINGOAREN SOINU-NEURKETAREN BERRI EMAN ION ALTUNARI ETA JARDUERAKO TITULARRARI AGINDUA |
| 650 | 2019 | 16/04/2019 | IDAZKARITZA        | ARRILLAGA PLAZAKO 29 (-2) APARKALEKUAREN ERABILERA LAGATZEA  |
| 651 | 2019 | 17/04/2019 | IDAZKARITZA        | ARTXIPIAGA PLAZAKO GARAJE BATEN EMAKIDA ESKURATZEKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA ZIURTATZEA  |
| 652 | 2019 | 17/04/2019 | DIRU-BILKETA       | 11448 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN ZATIKAPENA  |
| 653 | 2019 | 17/04/2019 | GIZARTE ZERBITZUAK | ESP. 5994 - ETXEBIZITZAREN ERABILAREN UZTEA  |
| 654 | 2019 | 17/04/2019 | GIZARTE ZERBITZUAK | ESPEDIENTEA 6447 ETXEBIZITZAREN ERABILERAREN UZTEA.  |
| 655 | 2019 | 17/04/2019 | IDAZKARITZA        | TOLOSAKO VOITH GOROSTIDI EREMUKO ETXEBIZITZA TASATUAK ESLEITZEKO OINARRIETAN EZARRITAKO BALDINTZAK BETETZEN DITUZTELA JAKINARAZTEA   |
| 656 | 2019 | 17/04/2019 | OBRAK              | TOLOSAKO UDALERRIKO HAINBAT KALE HIRITARTZEKO LANAK EXEKUTATZEKO OBRAN ZIURTAGIRIAK ONARTZEA   |
| 657 | 2019 | 23/04/2019 | IDAZKARITZA        | BAIMENA EMATEA TOLOSALDEA GARATZEN S.L.RI LEHIBERRI ZENTROAN INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAK JARTZEKO  |
| 658 | 2019 | 23/04/2019 | AZOKAK             | TOLOSA&CO 2018. URTEKO 2.ORDAINKETA  |
| 659 | 2019 | 24/04/2019 | FESTAK             | ALLIRI AUZOKO JAIK ANTOLATZEKO 2018KO DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA.   |
| 660 | 2019 | 24/04/2019 | KONTUHARTZAILAZIA  | 17 ETA 18 ZK.DUN FAKTUREN ERLAZIOAN AZALTZEN DIREN FAKTURAK ONARTU ETA ORDAINTZEKO   |
| 661 | 2019 | 24/04/2019 | FESTAK             | BERAZUBI AUZO ELKARTEARI 2019KO DIRULAGUNTZA ZUZENA EMATEA ETA TOLOSAKO UDALA ETA AIPATUTAKO ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA.   |
| 662 | 2019 | 24/04/2019 | FESTAK             | AMAROKO BIZILAGUN ELKARTEARI 2019KO DIRULAGUNTZA ZUZENA EMATEA ETA TOLOSAKO UDALA ETA AIPATUTAKO ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA.   |
| 663 | 2019 | 24/04/2019 | HIRIGINTZA         | LARRAMENDI KALEA 32AN OBRA EGITEKO BAIMENA   |
| 664 | 2019 | 24/04/2019 | AZOKAK             | TOLOSA&CO BAIMENA EMATEA TRIANGULOAK PLAZA KAXA BAT JARTZEKO (GOGOKO)  |
| 665 | 2019 | 25/04/2019 | FESTAK             | 2019KO APIRILAREN 27AN ETA MAIATZAREN 4AN, 11N, 18AN ETA 25EAN SAN FRANTZISKO PASEALEKUAN HAIMA BAT JARTZEKO BAIMENA EMATEA.   |
| 666 | 2019 | 25/04/2019 | GIZARTE ZERBITZUAK | CASER RESIDENCIAL - ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA: OTSAILA.   |
| 667 | 2019 | 25/04/2019 | PERTSONALA         | APIRILEAN EMAN DIREN KATEGORI DESBERDINTASUNAK   |



| ZKA | AÑO  | EGUNA      | DEPARTAMENTUA      | OHARRA  |
|-----|------|------------|--------------------|---|
|     |      |            |                    | ORDAINTZEA  |
| 668 | 2019 | 26/04/2019 | HIRIGINTZA         | LAUTABI SUSTAPENAK S.L.U. AURKEZTUTAKO 4 ABALAK ONARTZEA  |
| 669 | 2019 | 26/04/2019 | PERTSONALA         | APIRILEKO NOMINAREN ORDAINKETA ONARTZEA   |
| 670 | 2019 | 29/04/2019 | KIROLAK            | 2018KO DIRULAGUNTZAK.<br>TAK TRAINERUA  |
| 671 | 2019 | 29/04/2019 | KIROLAK            | 2018KO DIRULAGUNTZAK<br>TAK BATELAK   |
| 672 | 2019 | 29/04/2019 | KIROLAK            | 2019KO DIRULAGUNTZAK.<br>DIRULAGUNTZA IZENDUNA TAK ARRAUN ELKARTEA.   |
| 673 | 2019 | 29/04/2019 | HIRIGINTZA         | ENPERADORE KALEA 37KO JABEKIDEEK JARRITAKO BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA ONARTZEA  |
| 674 | 2019 | 29/04/2019 | DIRU-BILKETA       | 7866 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAREN ZATIKAPENA  |
| 675 | 2019 | 29/04/2019 | DIRU-BILKETA       | 17487 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAREN ZATIKAPENA   |
| 676 | 2019 | 29/04/2019 | DIRU-BILKETA       | 10233 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAREN ZATIKAPENA   |
| 677 | 2019 | 29/04/2019 | IDAZKARITZA        | 2019ERRE0009 KALTE ERREKLAMAZIOA ONARTZEA   |
| 678 | 2019 | 29/04/2019 | GIZARTE ZERBITZUAK | ABEGI ELKARTEAREKIN 2019KO DIRU-LAGUNTZA ONARTU ETA ORDAINTZEKO HITZARMENA SINATZEA.  |
| 679 | 2019 | 29/04/2019 | DIRU-BILKETA       | 21483 PREMAMENDU ESPEDIENTEAREN ZATIKAPENA  |
| 680 | 2019 | 29/04/2019 | HIRIGINTZA         | DORRE GARABIA JARTZEKO LIZENTZIA  |
| 681 | 2019 | 29/04/2019 | HIRIGINTZA         | GERNIKAKO ARBOLA LORATEGIA 6 JABEKIDEEI FATXADA KONPONTZEKO ERREKERIMENDUA BIALTZEA   |
| 682 | 2019 | 29/04/2019 | UDALZAINGOA        | OTSAILAN ZERBITZUA EMATEAGATIK CUADRA BIDEAN, S.L. ENPRESAK BIDALITAKO FAKTURA ONARTZEA   |
| 683 | 2019 | 29/04/2019 | PERTSONALA         | UDALTZAINEK AURREZ JUBILATZEAGATIKO PRIMAK  |
| 684 | 2019 | 29/04/2019 | PERTSONALA         | JAVIER LASA ZUBIZARRETA UDALTZAINAREN ERRETIRO TXOSTENA   |
| 685 | 2019 | 29/04/2019 | OBRAK              | 7.1 EZKERREALDEA" AZPI ESPARRUAN FELIPE GORRITI PLAZA 1EKO OIARBIDE ERAIKINAREN ERAISPEN PARTZIALA (ERANSKINEN ERAISPENA) ETA ERAIKINAREN FATXADAK EGOKITZEKO OBREN EXEKUZIO PROIEKTUAREN BISATU AURREKO PROIEKTU 2. ZIRRIBORROA ONARTZEA |
| 686 | 2019 | 30/04/2019 | HIRIGINTZA         | MONTESKUE HAUNDI BASERRIKO SEGREGAZIOA  |
| 687 | 2019 | 30/04/2019 | ALKATETZA          | CHARLEVILLE-RA JOATEKO DIRU ESKAERA.  |
| 688 | 2019 | 30/04/2019 | GIZARTE ZERBITZUAK | ZUTANI ELKARTEARI 2018. URTEARI DIRU LAGUNTZAREN BIGARREN ORDAINKETA EGITEA (%25A).   |
| 689 | 2019 | 30/04/2019 | IDAZKARITZA        | UZTURRE 7-4ª ETXEBIZITZA TASATUA ETA BERE ERANSKINAK SALTZEKO BAIMENA EMATEA  |
| 690 | 2019 | 30/04/2019 | IDAZKARITZA        | ARTXIPIAGA PLAZAKO 32 (-1) APARKALEKUAREN EMAKIDA ESKUBIDEA TRANSMITITZEKO GEHIENEKO PREZIOA  |
| 691 | 2019 | 30/04/2019 | HIRIGINTZA         | GUDARI KALEA 7-2 ESKUBIKO ETXEAN OBRAK EGITEKO BAIMENA EMATEA BARNE-BANKETAREKIN  |



TOLOSAKO  
UDALA

Denak jakinaren gainean geratu dira.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 9:00etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**